

TOLERANTZIA

Euskal Herriko agintari politikoek, Donostiako alkate Odon Elorzak, esate baterako, hitzetik hortzera darabilte "tolerantzia" hitza (oker ez banago, izen horixe darama Donostiako udaleko zinegotzi baten ardurak ere). Apustu egingo nuke, hala ere, ez dituztela irakurri Lockeren *Tolerantziari buruzko gutunak*. Ezin da ulertu, bestela, erakunde publikoek oraindik ere erlijio eta eliza katolikoari ematen dioten tratu pribilegiatua. Nola liteke XXI. mendean Donostiako Urgull mendian *Sacre Coeur* zatar horrek hortxe segitzea? Nola liteke Diputazioen errenten aitorpenerako inprimakian Eliza Katolikoarentzako diskriminazio positiborako aukera gordetzea? Edo tenplu katolikoan eraberritze lanetarako sekulako diru-laguntza publikoak bideratzea?

Laster, afrikar eta asiar etorkinen kopurua handitzearekin batera, ez da harrizkeoa izango erakunde publikoen erregistroetan horrelako idatziak jasotzea: Santa Klara irlan minarete ikusgarria izango duen mezkita eraikitzeo proiektua aurkezten du Donostialdeko musulmanen batzarrak; Gipuzkoako juduek euren aldeko laukitxo eskatzen dute zergen inprimakian; Tibeten lagunen Euskadiko batzordeak diru-laguntza eskatzen dio EJKo Kultura Sailari Hiru Errege Mahaiaren magalean tenplu budista eraikitzeo (Nafarroako gobernuarekin eskuduntza gatazka berria piztuz, bide batez); Abaltzisketako hinduen asanbladak mendi tontorretako gurutz kristauen ondoan Shiva edo Ganesharen irudiak jartzeko proposamena egiten die Udalbiltzei. Eta orduan zer?

Erljioek eragindako anabasa gaurdanik saihesten hasteko, bi proposamen egin nahi dizkiet dagokienei. Bat: Jesusen Bihotza Urgull menditik kendu eta Kristautasunaren Museoren bati edo, bestela, Berlingo harresiarekin egin zuten modura, harriz harri saltzea. Bi: lur-sail publikoetan dauden edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten tenplu katolikoei erabilera anitzeko baldintza minimoak jartzea: ostiraletan mezkita, zapatuetan sinagoga eta igandeetan eliza kristau gisa erabiliko dira eta hinduek, budistek eta gainerakoek ere izango dute euren eguna, bestelako ekitaldi kultural eta artistiko laikoetarako erabilera ahaztu gabe (ezaguna da tenplo katoliko askoren akustika ederra). Nire botoa espero lezake puntuok hauteskunde programan jasotzen dituen alderdiak.